



# **ELATZETA ESKOLA**

## **GARRAIO ARAUDIA**

**2023-2024**

---

## **ESKOLA-GARRAIOAREN ARAUDIA**

### **1. SARRERA**

Eskola-garraioa irakaskuntzarekiko zerbitzu-osagarria da eta ikasturte bakoitzerako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak antolatzen du.

Zerbitzuan ibilbide zehatzak eskaintzen dira eta antolatzeko ikasleek ikastetxera duten distantzia, ibilbidearen iraupena eta ikasleen kopurua kontuan hartzen dira.

Elatzeta HLHI ikastetxearen eskola-garraioaren zerbitzua ikasturte bakoitzean Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren gidalerroei jarraituz antolatuko da.

### **2. HELBURUAK**

- Segurtasunean eta segurtasunerako hezteak.
- Bizikidetasunean eta bizikidetasunerako hezteak:
  - Espazio eta zerbitzu osagarrietan harmonian bizikidetzea.
  - Pertsonak errespetatzea.
  - Araudi honen eta Bizikidetze Planaren arauak betetzea.

### **3. ESKOLA GARRAIOAREN FUNTZIONAMENDU ARAU OROKORRAK**

1. Garraio-zerbitzua bakarrik Eusko Jaurlaritzako araudian xedatutako baldintzak betetzen dituztenek erabil dezakete eta betiere ikastetxeko zuzendariak baimendu badu.

2. Garraio-zerbitzua behar duten ikasle guztiek zuzenean Idazkaritzan eskatu beharko dute.

3. Eskola-garraioa irailean hasi eta ekainean amaituko da, ikastetxeko OOGk onartutako eskola-egutegiarekin bat. Bi eta hiru urteko ikasleak garraioarekin ikasturtearen hasieran egokitzen aldia pasa ondoren hasiko dira erabiltzen.

4. Derrigorrezkoa eta oso garrantzitsua da Haur Hezkuntzako ikasleek (2, 3, 4 eta 5 urtekoek) identifikazioaren TXARTELA eramatea.

5. Ikasleak geltokian garaiz egongo dira, hain zuzen ere, ikastetxera eramateko aurrez ikusitako orduan. Autobusa galduz gero, ikastetxea ez da eramateaz arduratuko.
6. Eskola-garraioko autobusek ikasleak toki seguru batean jaso eta utziko dituzte.
7. Ikasleei ikasturte hasieran esleitutako ibilbidea, ikasturtean zehar ezingo dute ibilbidea aldatu.
8. Ikasle erabiltzaileen guraso edo pertsona arduradunak garaiz egongo dira geltokian umea jasotzeko orduan.
9. Gurasoek edo eurek eskuordetzen dituzten pertsonak jasoko dituzte ikasleak. Beste norbait etortzen bada, garraio begiraleek jakinaren gainean egon behar dute.
10. Eskuordetzeko, gurasoek **I. eranskina** entregatu beharko dute behar bezala sinatua eta pertsona baimenduaren NAN zenbakia zehaztuz.
11. Gurasoek edo eskuordetutako pertsonak ikaslea jasotzen ez badute, honako moduan jardungo da:
  - 11.1. Autobusa iristean heldu baimendurik geltokian ez badago, autobusak 2 minutu itxarongo ditu.
  - 11.2. Denbora hori igarota heldu baimendurik iritsi ez bada, begiraleak berehala Ikastetxeari jakinaraziko dio eta umearen arduradunarekin telefonoz harremanetan jartzen saiatuko da. Ibilbidea amaitu eta umea ikastetxera eramango du.
  - 11.3. Ikastetxea familiarekin harremanetan jartzen saiatuko da.
  - 11.4. Umea ikastetxera iristen den unetik 15 minutu igarotzen badira eta inor ez bada jasotzera pasatzen, gertaera zuzendariari jakinaraziko zaio, egokitzen jotzen duen moduan jarduteko.
12. Bestalde, umea geltokian jasotzen ez den guztietan, aurreko prozedura jarraitzeaz gain, ikastetxeak honako neurriak hartuko ditu:
  - 12.1. Gertaera lehenengoz izaten denean, familiari ohartarazpen idatzia bidaliko zaio.
  - 12.2. Gertaera errepikatuko balitz, ikastetxeak hartu beharreko neurriak hartuko ditu, besteak beste, eskola-garraioaren zerbitzuaren erabilera etetea.

13. Beren seme-alabak jasotzera joaten ez diren gurasoek aitorten bat sinatu beharko dute (II. eranskina) eta horretan esplizituki azalduko dute seme-alaba etxera bakarrik bueltatzeko baimena dutela. Gainera, erantzukizun guztia bere gain hartuko dute. Garraio begiraleei baimena duten ikasleen zerrenda pasako zaie informazio dugunean.

14. Ikasleak egun batez edo batzuek garraio-zerbitzua ez badu erabili behar, eta hori aldeztatik jakina bada, ibilbideko begiraleari idatziz ohartaraziko zaio.

15. Era berean, ikasleak zerbitzua goizez erabilia arratsaldean ez badu erabili behar, autobuseko begiraleari eta tutoreari idatziz oharra ekarri beharko dio. Bestela, autobusean joango da.

16. Aurreko atalean xedatutakoa betetzeko eta garraioa segurtasun- eta bizikidetzaren baldintzetan garatzeko, bizikidetzaren eta jokabide-arauak jarraian zehaztuko dira eta ikasleek bete beharko dituzte.

## **4. BIZIKIDETZA ETA JOKABIDE-ARAUAK (prebentzioaren oinarriko neurriak)**

### **4.1. IKASLEEN EGINKIZUNAK**

#### **Geltokira joatean**

- Iritsi geltokira denboraz, hau da, autobusaren orduan baino bost minutu lehenago gutxienez.
- Kalea gurutzatu behar bada, egin beti autobusaren aurretik. Espaloitik zoazenean, urrunduz 1,5/2 metro inguru bazterbidetik edo errepidetik eta begiratu gurutzatu baino lehen.
- Gurutzatu behar duzunean, joan oinezko pasabiderik hurbilenera. Begiratu beti lehenengo ezkerrean eta, ondoren, eskuinaldean eta, gero, berriz ezkerrean.
- Gurutzatzean, ziur izan gidariak ikusten zaituela eta zuk gidaria ikus dezakezula.

### **Autobusera igotzean**

- Autobusa hurbiltzen denean, mantendu beti urrun, gutxi gorabehera 2 metrora eta utzi espaloiraino hurbiltzea zuk ez jaitsi behar izateko.
- Itxaron autobusa gelditu arte, atea ireki eta gidariak edo garraio begiraleak sartzeko baimena eman arte.
- Ez joan inoiz oinez autobusaren atzealdetik, gidariak ezingo baitzaitu ikusi.
- Ez bultzatu zure lagunak.
- Erabili heldulekuak eroriak saihesteko. Autobusera igotzen zarenean, kontuz zintzilikariak dituzten jantziekin, motxila eskudeletan edo ateetan ez krokatzeko.
- Autobusetik hurbil zerbait erortzen bazaizu, esan gidariari edo garraio begiraleari. Ez saiatu zuk jasotzen, gidariak autobusa abian jartzen duenean ez ikusteko aukerak baitaude.

### **Autobusaren barruan**

- Eseri zure tokian eta jarri segurtasun-uhala.
- Autobusa ibiltzen hasten denean, zure garraio begiraleak emandako tokian eserita gelditu.
- Egin kasu zure garraioko begiraleari, zure segurtasunaren alde lana egiten baitu.
- Hitz egin tonu egoki batean. Oihukatzea, ozenki hitz egitea ez da komeni.
- Borrokak, bultzadak eta arriskua sor dezakeen edozein jokua baztertu behar duzu. Autobusa ez da jolasteko tokia.
- Utzi gidariak bere lana kontzentratua egitea. Gogoratu gidariaren lana baldintzarik onenetan zu etxera ala ikastetxera eramatea dela.
- Ez jolastu eskola-garraioaren seinalearekin, ezta beste elementu garrantzitsu batzuekin ere, hala nola beira puskatzeko mailuarekin. Zureak izango balira bezala zaindu. Ezin duzu hondatu ezer (egitekotan zure gurasoek ordaindu beharko dute).
- Autobus barruan ezin da jan edota edan.
- Zaindu eta mantendu garbia autobusa.
- Jostailurik ez ekarri, pelotak edo baloiak bereziki.
- Errespetu osoz tratatu behar dituzu gidari eta begiralea eta autobusean dauden pertsona guztiak.
- Debekatuta dago mugikorrek piztea eta erabiltzea.

### **Autobusetik jaistean**

- Erabili eskaileretako baranda, bestela, erortzeko arriskua duzu.
- Igotzean bezala, kontuz zintzilikariak dituzten jantziekin, motxila eskudeletan edo ateetan ez krokatzeko. Autobusa mugitzen has daiteke zu oraindik irteten ari zarenean.
- Kalea gurutzatu behar baduzu, egin autobusaren aurretik. Ibili espaloitik edo errepedearen ertzetik gutxi gorabehera hiru metrora (bost pauso handi) gurutzatu baino lehen. Ziurtatu gidariak ikusten zaituela eta zuk bera ikusten duzula bere adierazpenak betetzeko.

### **Patioan**

- HHko patioan itxaron behar duzu, ezin daiteke eskola-barrutik ibili.
- Egin betiere kasu garraioko begiraleari.
- Kontu handia izan eta ez jolastu joko arriskutsuetara. Halaber, lesioa sor dezaketen tresnak ez erabili, ezta bota ere.
- Ikasleen artean arazoren bat dagoela ikusten baduzu, garraioko begiraleari ohartarazi behar diozu.

## **4.2. BEGIRALEEN EGINKIZUNAK**

- Begiraleak autobusean sartuko dira lehenengo geltokian eta jaitsiko dira azken geltokian.
- Begiralearen eta gidariaren arteko koordinazioa oso garrantzitsua da guztia behar bezala garatzeko. Jardun lankidetzan beraiekin laguntzeko, adibidez, zailtasunak dituzten lagunei.
- Ikaslea familiak jasoko du edo baimenduriko pertsonak, baimena idatzia badu.
- Begiraleek ibilbide osoan zehar ordena eta ikasleen segurtasuna zainduko dute, eta ibilbideari dagokion geltoki guztiak errespetatzen direla kontrolatuko du.
- Ez du inoiz ikaslea bakarrik utziko, ez badago alde aurretik familiaren edo tutore legalaren baimen idatzia.
- Zuzendaritzak autobus zerbitzua erabiltzeko baimena ematen du. Beraz, ez bada horrela, begiraleak ez du inor onartuko.

- Garraioa egiten ari den bitartean ikasleren bat gaixorik jarriko balitz edo istripuren bat gertatuko balitz, ikastetxeari jakinaraziko zaio.
- Garraio zerbitzua bukatu ondoren, begiraleak autobus osoa errebisatuko du, ikasleren bat ez dela geratu ziurtatzeko edo material ahaztua jasotzeko.

### **4.3. GIDARIAREN EGINKIZUNAK**

- Autobusa puntualki iritsiko da.
- Autobuseko atek zabalduko dira autobusa geldi-geldirik egotean eta emerjentziazko argia piztu ondoren. Atek ez dira irekitzen, geldirik ez badago.
- Ikasleek igo eta jaitsi egingo dira, autobusa geldi-geldirik dagoenean eta emerjentziazko argia piztu ondoren.
- Ibilbidea, geltokiak eta ordutegia errespetatuko ditu.
- Autobusa martxan jarriko da ikasleak eserita egon ondoren.
- Ikasleak aurreko atetik (begiralea dagoen atetik) jaitsiko dira eta bestea itxita egongo da.

## **5. ZUZENDU BEHARREKO JOKABIDEAK ETA NEURRI ZUZENTZAILEAK**

### **5.1 JOKABIDE DESEGOKIAK**

a) **Jokabide desegokiak** hauek izan daitezke:

1. Garraio-begiraleen azalpenak ez jarraitzea.
2. Autobusetik irtetean edo autobusera sartzean ordenarik ez izatea.
3. Altxatu edo gaizki eseriak egotea.
4. Tokiz aldatzea.
5. Ikastetxeko kideen kontra jarrera, keinu eta hitz desegokiak izatea.

b) **Jokabide desegokiak zuzentzeko jarduerak eta zereginak.** Jokabide desegokiak eskola-garraio begiraleek zuzenduko dituzte honako neurri bat edo batzuk hartuz:

1. Ikasleari **ahoz ohartaraztea** eta jokabide zehatzei eta horien ondorioei buruz hausnarketa egitea.
2. Errepikatuz gero, kexaren berri zuzendaritzari emango zaio eta **idatziz egingo zaio ohartarazpena** familiari sinatu dezan.
3. Begiraleak atxikitako tokia aldatzea.

## **5.2 BIZIKIDETZAREN KONTRAKO JARRERAK**

a) **Bizikidetzaren kontrako jokabideak** hauek dira:

1. Jokabide desegokia dela eta, hiru arau-hauste arin metatzea.
2. Garraio-begiraleen azalpenei jaramonik ez egitea, horiekin batera diziiplina gabezia edo irain-azalpenak ala mehatxuak badaude.
3. Garraioaren ohiko funtzionamendua eragozte.
3. Aipatutako espazioetan ez egotea.
4. Nahita edo gaizki erabiltzeagatik, autobusa kaltetzea.
5. Indarkeria fisikoa erabili gabe, eskubidea duen zerbait egin dezan saihestea edo bere borondatearen kontrako zerbait egitera behartzea.
6. Begiraleekiko edota lagunekiko errespeturik ez izatea, hau da, horien errespetuari, segurtasunari edo osasunari eragiten dion beste edozein jokabide, baita zalantzarik gabe erasoaren saio edo mehatxu bezala interpreta daitezkeen keinuak edo jarrerak ere.
7. Ordena pertsonala edo taldearena asaldatzen duten portaerak.

b) **Bizikidetzaren kontrako joerak zuzentzeko jarduerak eta zereginak.** Zuzendariak hurrengo neurriak har ditzake:

1. Idatzizko jakinarazpenak ikasleari eta familiari bidaltzea.
2. Hezkuntza-lanak edo sortutako kaltea konpontzen laguntzen duten zereginak egitea.
3. Eskola-garraioaren zerbitzua erabiltzeko eskubidea etetea.



### **5.3 BIZIDIKETASUNA LARRIKI KALTETZEN DUTEN JOKABIDEAK**

a) **Bizikidetzaren larriki kaltetzen duten jokabideak** hauek dira:

1. Bizikidetzaren kaltetzen duten hiru arau-hauste larri metatzea.
2. Autobusa itxaroten ari den bitartean, ikastetxetik baimenik gabe ateratzea.
3. Nahita autobusean, instalazioetan eta beste pertsonen gauzetan kalteak sortzea, bai banan-banan, bai taldean.
4. Hezkuntza-komunitateko edozein kideren kontra eraso fisikoa edo psikologikoa.
5. Pertsonen errespetu, segurtasun edo osasunari oso larriki eragiten dion edozein jokabide.

b) **Bizikidetzaren larriki kaltetzen duten jokabideak zuzentzeko jarduerak eta zereginak.** Zuzendariak zuzenduko ditu eta, horretarako, aurreko artikuluan xedatutako neurri bat edo batzuk aplikatuko ditu, honako hauez gain:

1. Ikastorduetatik kanpo sortutako kalte materialak konpontzen laguntzen duten hezkuntza-lanak edo zereginak.
2. Ikasturte akademikoaren amaierara arte luza daitekeen etenaldia, eskola-garraioa erabiltzeko eskubideari dagokionez.

## I. ERANSKINA

### GARRAIO ARAUTEGIKO BAIMEN AGIRIA

DOCUMENTO DE AUTORIZACIÓN DE LA NORMATIVA DEL SERVICIO DE TRANSPORTE

IKASTURTEA/CURSO: 20\_\_-20\_\_

<b>Ikaslea</b> <i>Alumno/a</i>		
<b>Ama, aita edo tutore legala</b> <i>Madre, padre o tutor legal</i>		
<b>NAN</b> <i>DNI</i>		
<b>Tif.1</b>	<b>Tif.2</b>	<b>Tif.3</b>

**Nire seme-alaba autobus geltokitik jasotzeko baimena ematen dut.** *Autorizo a recoger de la parada del autobús a mi hijo/hija:*

<b>NAN</b> <i>DNI</i>	<b>Izen-abizenak</b> <i>Nombre-apellidos</i>

**Irunen, 20\_\_ ko \_\_\_\_\_ren \_\_\_\_\_ ean**  
*En Irun, a \_\_\_\_ de \_\_\_\_\_ de 20\_\_*

**Sinadura** *Firma:*

## II. ERANSKINA

### **BAIMEN AGIRIA**/DOCUMENTO DE AUTORIZACIÓN

**IKASTURTEA**/CURSO: **20**\_\_\_\_-**20**\_\_\_\_

<b>Ikaslea</b> <i>Alumno/a</i>	
<b>Ama, aita edo tutore legala</b> <i>Madre, padre o tutor legal</i>	
<b>NAN</b> <i>DNI</i>	

### **Baimena ematen dut / Autorizo a:**

1.- Eskolatik edo autobus geltokitik etxerako bidea **bakarrik** egiteko (LH3tik LH6ra). Realizar **sólo** el trayecto entre el centro o la parada de autobús a su domicilio (de 3ºEP. a 6º EP.)

BAI *SI*

EZ *NO*

Baimena emanaz gero, asteazkenetako ordutegia zehaztu: / En caso de autorizar la salida los miércoles, concretar horarios:

Asteazkenak / *miércoles:*

12:45

13:30

14:30

Ikaslearen izena *Nombre del alumno/a:* .....

**Irunen, 20**\_\_\_\_ **ko** \_\_\_\_\_ **an**  
*En Irun, a* \_\_\_\_ *de* \_\_\_\_\_ *de* 20\_\_\_\_

**Sinadura** *Firma:*

**BAIMEN AGIRIA**/DOCUMENTO DE AUTORIZACIÓN  
**IKASTURTEA**/CURSO: **20**\_\_\_\_-**20**\_\_\_\_

<b>Ikaslea</b> <i>Alumno/a</i>	
<b>Ama, aita edo tutore legala</b> <i>Madre, padre o tutor legal</i>	
<b>NAN</b> <i>DNI</i>	

**Baimena ematen diot** *Autorizo a:*

.....ri (senide zaharrenaren izena) eskolatik edo autobus geltokitik etxerako bidea **senide txikiago batekin** egiteko. /  
..... (nombre del familiar mayor) a realizar el trayecto entre el centro o parada del autobús a su domicilio **con un familiar menor**.

BAI *SI*

EZ *NO*

Ikaslearen izena *Nombre del alumno/a:* .....

**Irunen, 20**\_\_\_\_ **ko** \_\_\_\_\_ **an**  
*En Irun, a* \_\_\_\_ *de* \_\_\_\_\_ *de 20*\_\_\_\_

**Sinadura** *Firma:*